

Topalekua

98 zk. 2018ko uztaila

julio 2018 - n.º 98

2. orr.: UPV/EHU-ren 2018-2021
Plan Estrategikoa onetsi da

3. orr.: Euskal Autonomia
Erkidegoko unibertsitate-
tituludunen % 78,5 laneratuta dago

4. orr.: CCS eta CRUE erakundeek
indarrak batu dituzte, unibertsitateek
gizarte-ongizatearekin hartu duten
konpromisoa bizkortzeko

50 estrategia, iraultza digitala Espainian
bultzatzeko

GIZARTE-KONTSEILUAK UPV/EHU-ren 2017ko EKITALDIKO KONTUAK ONETSI DITU

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak UPV/EHUren 2017ko kontabilitate-egoerak onetsi zituen uztailaren 25ean, Bilbon. Hasierako aurrekontua 405,5 milioi eurokoa izan zen, ekitaldi horretan, baina aurreko ekitaldietako geldikinak gehituta, 506,4 milioikoa izan da, azkenean. Unibertsitateak aurrekontu horren % 83,67 exekutatuta du.

Unibertsitateak partaidetza maioritarioa dauka beste erakunde batzuetan, eta Kontseiluak bilkura berean onetsi zituen erakunde horien kontabilitate-egoerak ere. Hona hemen erakundeok: EUSKOIKER, UPV/EHUko Uda Ikastaroak, Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa eta Euskampus. UPV/EHUk ekonomiari eta finantzari buruzko informazio hori unibertsitatearen gobernu-organoari aurkeztu zion, gizarteari kontuak emateko prozesuan.

Izen-aldaketak

Bilkura berean Donostiako Kimika Zientzien Fakultatearen izena aldatzea onartu zen, eta hemendik aurrera **Kimika Fakultatea** deituko da. Halaber, Gasteizko **Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola Ingeniaritza Eskola** deituko da.

Horrez gain, Gizarte Kontseiluak 2017ko deialdiko C mailako ordainsari osagarriak onartu zituen; guztira, 281 irakasleri aitortu zieten unibertsitatean egindako lana. Horrekin batera, ia hogeita hamar ikastaroren matrikulasak ere onartu zituen. Ikastaro horiek ikas-

keta osagarriak eskainiko dituzte, etengabeko prestakuntza hainbat diziplinan sustatzeko.

Berezko tituluak

Gizarte Kontseiluak UPV/EHUren berezko ikasketak batzuen prezioak onartu zituen; zehazki, 46 master- eta graduondoko ikasketaren prezioak, 2018-2019 ikasturterako. Bi ikastaroren prezioa aldatu da; 22 ikastaroren prezioak aurreko urtean bezala jarraitzen du; eta gainerako 22 ikastaroak berriak dira. Zehatz-mehatz, hurrengo ikasturtean Arkitekturaren 4 berezko titulu eskainiko dira; Arte eta Zientzia, 1; Gizarte Ongizatean, 2; Biomedikuntzan, 1; Bizi Kalitate eta Osasunean, 7; Zientzia Politiko eta Gizartearen arloan, 3; Zuzenbidean, 3; Hezkuntzan, 4; Enpresa eta Ekonomiaren arloan, 10; Hizkuntza eta Literaturan, 2; Ingeniaritza eta Teknologian, 7; Ingurumenean, 1; Biktimologian, 1. Hemen duzu eskuragarri master- eta graduondoko ikasketen katalogoa: <https://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/berezko-titulazioen-eskaintza-18-19>.

Era berean, bilkurak onartu zuen Hezkuntza Sailari honako proposamen hau egitea: 6 titulu berri ezartzea eta 12 kentzea. Gainera, hiru titulazio aldatu dira. Bestalde, Kontseiluak bost lankidetzak beka banatzeko erabaki zuen. Ministerioak egin zuen bere garaian bekak eskatzeko deialdia. Azkenik, Kontseiluaren osoko bilkura berean, aurrekontuaren aldaketa batzuk, ordainsari osagarrien esleipenari buruzko errekurso batzuk eta bilkuren eta batzordeen bileren egutegia onartu zituen.

UPV/EHU-ren 2018-2021 PLAN ESTRATEGIKOA ONETSI DA



Gizarte Kontseiluak uztailaren 25ean egindako bilkuran «UPV/EHUren 2018-2021 Plan Estrategikoa» onartu zuen; Gobernu Kontseiluak uztailaren 12an jada onartua zuen. Plan estrategikoa ezarri dira unibertsitateak jarraitzeko lehentasun handieneko jardun-ildoak, eta Gizarte Kontseiluak zenbait ekarpen egin ditu.

Planean bost ardatz estrategiko zehaztu dira. Haietako bat *gizartearekiko harremana* da, eta honako helburu hauek ditu: ezagutza gizarte-eragileei, eragile publikoei eta pribatuei transferitzen laguntzea; Unibertsitateak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean daukan parte-hartzea indartzea; eta zientziaren zabalkuntza, garapen jasangarria eta inklusio-politikak sustatzea. Gainerako lau ardatz estrategikoak *prestakuntza*, *ikerikuntza*, *pertsonek* eta, azkenik, *gobernantza eta baliabideak* dira.

Besteak beste, hurrengo lau urteetan planaren bidez lortu nahi diren helburuak ikertzaile gazteei laguntzea, prestakuntza duala sustatzea eta prestakuntza euskaraz eta ingelesez sustatzea dira. UPV/EHUK ikertzaile gisa duen profila sustatu nahi du nazioartean, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-erronka berriei aurre egiteko; halaber, gizarteak jakintzaren bidez eraldatzeko prozesuan liderra izan nahi du. Oro har, plan horren bidez ikasleen gaitasunen eta trebetasunen arloko prestakuntza indartu nahi da, ikasleek, ikasketak amaitu eta gero, lanpostu bat errazago topa dezaten.

‘GIZARTEAREKIKO HARREMANA’ ARDATZAREN HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. helburua: Unibertsitatea garapen jasangarria, inklusioa eta gizarte-konpromisoa sustatzen dituen erakunde bihurtzea.

Ekintzak

- UPV/EHUKo kolektiboaren arteko lankidetzak –AZL, irakasleak eta ikertzaileak eta ikasleak–, garapen jasangarriaren arloan (uraren kontsumoa, energia, hondakinen kudeaketa, garraioak eta abar).
- Garapen jasangarriko helburuei buruzko erronkak lantzeko, unibertsitatearen eta gizarte-eragileen lan bateratua sustatzea, ikasketak-erkidego zabalduen bitartez.
- Premia espezifikoak dituzten kolektiboek laguntzeko programak eta deialdiak sendotzea (iheslariak, gizarte-, ekonomia- eta kultura-egoera ahulean dauden kolektiboek eta abarri laguntzeko).

2. helburua: Jakintza eta kooperazioa sortzeko eta euskal gizarteari transferitzeko eragile gisako lidergoa sendotzea, lehiakortasuna eta gizartearen garapena bultzatzeko.

Ekintzak

- UPV/EHUren eta gizartearen arteko lankidetzak sustatzea: batetik, UPV/EHUKo ikertzaileak enpresetara eta ingurune erakundeetara joateko mugikortasuna bultzatzeko; eta, bestetik, doktoretza-ikasleak elkarlanean garatzeko.
- Ikerketen emaitzak baloratzeko eta lizentziak emateko prozesuak indartzea (identifikatzea, ebaluatzea, babesa eta zahartzapena).
- UPV/EHUKo ikertzaile-taldearen eskaintza teknologikoa merkaturatzeko mekanismoak hobetzea, gizarte- eta ekonomia-sektoreko kontratuak areagotzeko.
- Ikerketen emaitzen balorizazioa abiapuntutzat hartuta, unibertsitate-erkidegoko ekintzailetza-plataformak indartzea, ekimenak bultzatzeko.

3. helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko ZTB-P-RIS garatzen laguntzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileekiko lankidetzak egituratuz.

Ekintzak

- Unibertsitatearen eskaintza zientifiko eta teknologikoa eguneratzea eta zabaltzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileekiko lankidetzak bultzatzeko.

- Teknologian, jakintzan edota prozesuetan berrikuntza-premiak dituzten eta irtenbideak ezarri nahi dituzten erakundeekin topaketak antolatzea eta epe luzeko lankidetzak ezartzea, jakintza transferitzeko. Erakundeok gizarte- eta ekonomia-inguruneok izango dira.

4. helburua: Zientzia- eta teknologia-deieren garapen goiztiarra sustatzea; bereziki, emakumeena.

Ekintzak

- Zientziaren hezkuntza eta zientziaren zabalkuntza sustatzea, adin goiztiarretan.
- Beste eragile eta erakunde batzuekin batera, deiera zientifikoak bultzatzeko sentsibilizazio- eta sustapen-programa bat diseinatzea eta ezartzea, unibertsitateaz kanpoko ikasleei zuzenduta, eta, bereziki, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako emakumezko ikasleei zuzenduta.

5. helburua: Euskararen erabileran eta Euskal Herriaren gizarte-eta kultura-garapenean UPV/EHUK duen lidergoa indartzea.

Ekintzak

- Euskal hizkuntzaren eta kulturaren arloei buruzko ikerkuntza, ekoizpena eta hedapena sustatzea, tokiko eta nazioarteko eremuetan (ikusmen-arte plastikoak eta eszenikoak, literatura eta adierazpen-bide berriak).
- Topaketa-foroak sustatzea, unibertsitatea eta gizarte- zein kultura-eragileak elkartzeko; bereziki, ehuGune topaketa-foroa.

6. helburua: UPV/EHUK bere ingurunean egiten duen ekarpena bistaratzea.

Ekintzak

- Ehualumni indartzea, eta Mentoring, Enbaxadore eta Cicerone programak sendotzea.
- UPV/EHU maizago agertzea hedabideetan eta gizarte-sareetan.
- Ikasketa-ekitaldietan parte hartzeko joera piztea: esaterako, graduazio-ekitaldietan, ikastaroen hasieran, doktoreak kargutan ezartzeko ekitaldietan. Horrez gain, jendeari ematea ekitaldien berri.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATE-TITULUDUNEN % 78,5 LANERATUTA DAGO

Espanian hobexea da unibertsitate-tituludunen lan-egoera, gainerako biztanle aktiboen lan-egoerarekin erkatuta. 2007. eta 2017. urteen artean 1,76 milioi lanpostu ezabatu ziren, Estatu osoan. Aldi honen amaieran 792 000 tituludun gehiagok lanpostu bat eskuratu dute, hasierako kopuruarekin erkatuta. Euskal Autonomia Erkidegoan % 78,5 da laneratuta dauden tituludunen ehunekoa. Hona hemen aldean tartea: Katalunian, % 82,8; eta Kanariar Uharteetan, % 66,9. BBVA Fundazioak eta IVIE Institutuak ondorio horien berri eman dute, argitaratu dituzten monografiatik hartuta. Hauxe da azterlanaren izenburua: «*Itinerarios de inserción laboral y factores determinantes de la empleabilidad: formación universitaria versus entorno*». Azterlanean jorratu dira unibertsitateek enplegarritasunean egiten duten ekarpena eta eurek kontrolatu ahal dituzten faktoreak, bai eta unibertsitateen ekonomia- eta lan-inguruneen lotutako faktoreak ere.

Ingurunearen eragina

Unibertsitatearen inguruneak eragin handia izaten du laneratzeko prozesuan. Zehatzago esanda, lurraldeen artean alde nabariak daude enplegua sortzeko erritmoetan, langabezia-tasetan eta eskualdeko ekoizpen-sareek eskaintzen dituzten lanpostuen ezaugarrietan. 2009-2010 ikasturteko tituludunek zer autonomia-erkidego ikasi zuten, laneratzeko ibilbideen bilakaera era batekoa edo bestekoa izan da. Datu horiek eskuratzeko, tituludunen laneratzeko ibilbideak hurrengo bost urteetan ebaluatzen dira.

Langabezia-tasak –lanik ez duten tituludunen ehunekoak– honako bi puntu hauen artean daude: Katalunian, % 11; eta Andaluzian, % 26,1. Euskal Autonomia Erkidegokoan % 16 da tasa hori. Tasen arabera, Galizia erkidegoa tituludunek denbora-tarte handiena ematen dute, lan bila. Hamabi hilabetetik gorako epea ematen duten tituludunen ehunekoa % 32,9 da Galizian; Katalunian, ordea, % 13,3 soilik. Euskal Autonomia Erkidegoko ehunekoa % 23,9 da.

Enplegarritasun-faktoreak

Lana lortzeko aldagai erabakigarriena titulazioa da; zehazki, emaitza hobeak eta emaitza okerragoak atera dituzten ikasketen laneratzeko-tasen arteko aldea % 47,4 puntukoa

da. Osasun Zientzien eta Ingeniaritzaren arloko ikasketek laneratzeko-tasa handienak lortu dituzte; zehazki, % 80tik gorakoak. Medikuntzaren arloko eta Ingeniaritza Elektronikaren arloko ia ikasle guztiak laneratu dira (% 97,7 eta % 98, hurrenez hurren), besteak beste. Enplegu-tasa txikiak Artearen eta Giza Zientzien arloko ikasketetan daude. Arlo horretako batezbestekoa % 64,3 da. Frantses Filologian, adibidez, % 50,6 laneratu da.

Enplegarritasun handieneko unibertsitateak

BBVA Fundazioak eta IVIE Institutuak egin duten azterlanean egiaztatzen da UPV/EHU enplegarritasun handieneko 40 unibertsitateen sailkapenean dagoela. Valentziako Unibertsitatea (Estudi General) goiko postuan dago, % 82,2 indizea eskuratuta; ondoren, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa dago (% 78,8); eta azkenik, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa (% 76,8). Deustuko Unibertsitatea laugarren postuan dago, % 75,7 indizea eskuratuta; eta UPV/EHU 29. postuan, % 57,2 indizea eskuratuta. Errioxako Unibertsitatea sailkapenaren amaieran dago, % 52,3 indizea eskuratuta.

BBVA Fundazioaren eta IVIE Institutuaren monografia egiteko lanaren zuzendaria Francisco Pérez, IVIE Institutuko Ikerkuntza-zuzendaria, izan da. Egileak Joaquín Aldás, José María Peiró eta Lorenzo Serrano ikertzaileak dira, eta guztiak Valentziako Unibertsitateko katedradunak dira. Haiek talde teknikoarekin batera jardun dute, eta taldea Belén Miralles, Ángel Soler eta Irene Zaera kideek osatu dute.

ENPLEGARITASUNA SUSTATZEN DUTEN UNIBERTSITATEEN EZAUGARRIAK

1. Enplegarritasuna helburu estrategikotzat jotzen dute
2. Irakaskuntzaren eskaintza titulazioen enplegarritasunaren arabera da
3. Ikasleen artean mugikortasuna sustatzen dute
4. Irakasleen kalitatea zaintzen dute
5. Ingurunearekin harremanetan egoteko inbertsioak egiten dituzte. Horretarako, prestakuntza-, ikerkuntza- eta transferentzia-enpreekin eta erakundeekin jarduten dute elkarlanean

Unibertsitate-tituludunen laneratzeari buruzko batez besteko emaitzak. Aztertu diren autonomia-erkidegoak. (ehunekoa)

	Laneratzeko-tasa	Langabezia-tasa	12 hilabetetik gorako epea, lana bilatzeko	Lanaldi osoa	Kalifikazio oso handiko lanpostuetan ari diren unibertsitate-tituludunak	4. eta 5. soldata-kintilak
Andaluzia	67,5	26,1	30,5	73,0	74,0	34,3
Aragoi	80,9	12,8	23,6	76,1	75,8	40,1
Asturiasko Printzerria	70,8	21,9	30,9	77,2	73,7	38,1
Balear Uharteak	81,1	12,6	18,9	76,6	73,9	38,9
Kanariar Uharteak	66,9	23,6	30,7	72,7	66,6	31,1
Kantabria	73,8	21,2	28,4	76,9	75,6	39,5
Gaztela eta Leon	73,4	20,2	28,5	72,1	77,3	39,4
Gaztela-Mantxa	70,2	24,0	28,5	74,5	75,1	41,2
Katalunia	82,8	11,0	13,3	75,6	79,7	47,9
Valentziako Erkidegoa	73,3	20,2	25,4	75,1	74,6	34,0
Extremadura	69,1	25,2	32,5	76,3	70,5	29,8
Galizia	72,5	21,4	32,9	78,3	76,2	31,8
Madrilgo Erkidegoa	80,7	13,6	17,4	81,1	83,6	51,3
Murtziako Eskualdea	72,3	20,0	23,9	75,1	73,3	34,9
Nafarroako Foru Erkidegoa	78,4	14,4	19,6	80,8	84,7	50,6
Euskal Autonomia Erkidegoa	78,5	16,0	23,9	75,3	79,8	46,8
Errioxa	80,4	11,5	19,4	75,5	68,3	41,7
ESPAINIA	75,6	18,0	23	76,5	77,6	42,3

■ Hoberena
■ Okerrera

CCS eta CRUE ERAKUNDEEK INDARRAK BATU DITUZTE, UNIBERTSITATEEK GIZARTE-ONGIZATEAREKIN HARTU DUTEN KONPROMISOA BIZKORTZEKO



CCS (Espainiako Unibertsitateen Gizarte Kontseiluen Konfederazioak) eta CRUE (Espainiako Unibertsitateak) erakundeek hitzarmen bat sinatu zuten udaberrian, eta erakunde bion arteko lankidetzaz zehazteko esparru orokorra zehaztu zuten. Helburua jarduerak, unibertsitate-erkidegoari ematen zaion zerbitzua eta gizarteari ematen zaiona hobetzea da. Antonio Abril Abadín CCS erakundeko presidentek eta Roberto Fernández Díaz CRUE erakundeko presidentek sinatu dute dokumentua, eta lankidetzaz-ildo berriak zabaldu dituzte. Konpromiso horren esparruan egin diren lehen ekintzetako bat haxe izan da: IVIE Institutuari (Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas) eskatu diote Espainiako unibertsitate-sistemak gizartearen eta ekonomian egiten duen ekarpenari buruzko azterlan bat egitea.

50 ESTRATEGIA, IRAULTZA DIGITALA ESPAINIAN BULTZATZEKO

Telefónica Fundazioak eta Prospektiker erakundeak «50 estrategias para 2050. El trabajo y la revolución digital en España» deituriko azterlana kaleratu dute. Azterlan horretan teknologia-aldaketan ondorioak aztertzen dira; eta, bereziki, lanari eragiten diotenak. Honako arlo hauek dira ondorioak egituratzen dituztenak: hezkuntza eta ikaskuntza; zientzia eta teknologia; enpresa eta lana; gizarte eta kultura; gobernu eta politika publikoak.

Hezkuntza eta ikaskuntza

- 1 Hezkuntza digitala orokortzea eta IKTak irakaskuntzan txertatzea
- 2 Lan-merkatuko adimen-sistemak hezkuntza- eta lan-politiketan aplikatzea
- 3 Hezkuntza-sistemaren malgutasuna ziurtatzea
- 4 Hezkuntza-sistemaren ikuspegia aldatzea, kolektiboaren ordez, indibiduala izan dadin
- 5 Unibertsitate-sistema bizkortzea, egiturak modernizatzeko eta irakasleen birziklapena sustatzeko
- 6 Metodologia didaktikoak garatzea, erronkak ebazteko eta autoenplegua, ikaskuntza eta autoikaskuntza bultzatzeko
- 7 Unibertsitatearen I+G+b arloa eta gizartearen premiak bateratzea
- 8 STEM konpetentzietan oinarrituta dauden hezkuntza-programak sustatzea
- 9 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza-faseari garrantzi handiagoa ematea
- 10 Hezkuntza integrala sustatzea, konpetentzia digitalak eta sormenaren eta giza zientzien konpetentziak uztartzeko
- 11 Hezkuntzari lotutako eredu hibridoak sortzea, eta haietan metodologia berriak eta prestakuntza praktikoa ezartzea
- 12 Gizarte osoaren alfabetatze digitala sustatzea, aurrerapen teknologikoa inklusiboa izan dadin

Zientzia eta teknologia

- 13 Zientziari eta teknologiari buruzko estrategia eremu nazionalen ezartzea
- 14 Errealitate hedatuko sareak sustatzea eta adimen artifizialerako sare- eta interkonexio-kultura bat sustatzea
- 15 Zibersegurtasunaren aldeko apustua egitea
- 16 Pertsonen sarea sustatzea (Internet of beings)
- 17 Arrisku kapitaleko funtsak abiaraztea, I+G+b arloko inbertsioa bultzatzeko
- 18 Garapen zientifikoa bultzatzea, arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko elkarlanean oinarrituta
- 19 Energia berriztagarrien aldeko apustua egitea
- 20 Espazioa esploratzeari buruzko programetan parte-hartze aktiboa izatea
- 21 «Teknologia humanista» kontzeptuaren aldeko apustua egitea, 4. industria-iraultzaren eragiletzat hartuta
- 22 Espainian teknologia-eduki propioak bultzatzea, singularitasunean eta aniztasun kulturalaren oinarrituta
- 23 Patenteak eskatzen laguntzeko programa

Enpresa eta lana

- 24 Autoenplegua eta ekintzailatza sustatzeko sistemak hedatzea, eta ekosistema konektatuak bultzatzea
- 25 «Malgutasuna eta segurtasuna» konbinatzen dituzten eskemei jarraitzea, gizarte-babesa emateko ereduak berriz diseinatzea
- 26 Jakintzaren kudeaketa enpresetako berrikuntza irekiaren bitartez sustatzea
- 27 Enpresek gizartearen eta langileengan izaten dituzten eragina eta erantzukizun soziala berriz pentsatzea
- 28 Prestakuntza dualeko ereduak goi-mailako hezkuntza-sistema arautu osoan sustatzea
- 29 Laneratzeko programa integralak sustatzea
- 30 Enpresaren eredu berriak eta jardun ekonomikoaren eredu berriak sustatzea (P2P)
- 31 Bizitza osoan prestatzen jarraitzeko ereduak garatzea
- 32 Ekonomia zirkularrean oinarritutako eredu produktiboa sustatzeko politikak ezartzea
- 33 Esperimentazioa bultzatzeko inguruneak eta baliabideak garatzea

Gizartea eta kultura

- 34 Erakundeen eta pertsonen balio etikoak berrir definitzea
- 35 Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzeko ekintzak bultzatzea, gizartearen eremu guztietan
- 36 Kulturazintasun handiagoa duen gizartea kudeatzea
- 37 Konpetentzia digitalak orokorrean eta gako-konpetentzia analitikoak garatzea
- 38 Industria sortzaileak indartzea, kultura digitalaren arloan
- 39 «Smart citizen» kontzeptua nagusitzea
- 40 Errealitate hedatuko erabilerak eremu kulturetara zabaltzea
- 41 Gaitasun kognitiboak adimen areagotuen bidez hobetzea

Gobernu eta politika publikoak

- 42 Teknologiari lotutako estrategia nazionala estatu-politika bihurtzea, alderdien eztabaida alde batera utzita
- 43 Aurrerapen teknologikoa bultzatzeko eginkizun publikoak indartzea
- 44 Administrazioak gehiago inplikatzeko teknologiararen erabileraren sustapenean
- 45 Adimen artifiziala politika publikoen definizioan aplikatzea
- 46 Herritarren parte-hartzea bultzatzeko mekanismo berriak ezartzea, herritarrek botoa emateko aldietan ez ezik, erabakiak hartzeko uneetan ere, gero eta parte-hartze handiagoa izan dezaten
- 47 Gobernu irekian, gardentasunean eta kontu-ematean oinarritutako gobernantza
- 48 Administrazioek zibersegurtasunaren arloan duten eginkizuna indartzea
- 49 Klima-aldaketara eta energia-trantsizioa egokitzeko plan nazionala
- 50 Oinarritzeko errentari lotutako sistemak ezartzea